ARAMAIO


"Orixol-Urkiola Parke Naturala"

ARAMAIOKO NATURA

Aramaio naturaz inguraturik dago

Iparraldean, Urkiolako Parkea dago, mendebaldean aldiz, Albinagoiako basoa eta Baso Erreserba, hegoaldean ostera, Mirugaineko basoa eta Albinako urtegia eta ekialdean, Murugain mendia. Aramaioko txoko ezkutuak ezagutzeko eta naturaz gozatzeko gonbitea luzatzen dizugu.

Urkiolako Parkea

Urkiolako Parke Naturala osatzen duten mendi eta basoek, ondare natural aberatsa eta paisaia ikusgarriak eskaintzen dizkigute. Inguru honek, kultur, historia eta arkeologia baliabideez gain, ahoz aho eta mendez mende iraun duten mito, legenda eta kontu ugari gorde ditu.

Urkiolako paisaia flora oparo batek osatzen du, non deigarri egiten diren kareharrizko haitz zuriak. Bertan, hainbat baso mota aurkituko ditugu: pagadiak, artadiak, harizti ak, ameztiak edo urki basoak. Hala ere, kanpoko koniferen landaketak ere ugariak dira (pinu, izei, altzifre…).

Albinagoiko Baso Erreserba

Hiru zatitan banaturik dago Erreserba hau; lehenengo bi zatitan, konifero eta hostozabalez osaturiko bilduma bana dugu; hirugarrenean aldiz, Arabako insignis pinu (Pinus radiata) baso zaharrena. Altuera handiko pinuak daude bertan, handienak esaterako, 44 m neurtzen ditu.

Arboretoan hainbat herrialdetako espezie exotikoak daude: AEB, Kanada, Txina, Himalaia, Balkanak, Kaukaso, Japonia, Europa Erdialdea, Korea etab.

Erreserba ikusi ondoren, Albinagoiko basotik txango bat egin dezakegu. Hau da erreserbari izena ematen dion basoa eta haritzak ere badituen pagadi eder eta zabala da. Ez da zaila izaten basurde, orkatz, gabirai edo zapelatzen bat ikustea.

Mirugain basoa

Oletan burdina lantzeko beharrezkoa zen ikatza baso hauetatik atera zen. Garai batean, gizakiak eratutako pagomotzek zutik diraute. Bertan babesten dira katajineta, lepahori, lepazuri, muxarra eta beste hainbat animalia.

Albinako urtegia

Zadorra arroko urtegi txikiena bada ere, politenetarikoa ere bada. Urtegia hainbat zuhaitz espeziez osaturiko basoz inguraturik dago: haritz, urritz, pago, elorri, altzifre… Oso txoko kuttuna da, batez ere udazkenean.

NATURALEZA

Aramaio respira naturaleza por los cuatro costados. Al norte, el Parque de Urkiola, al oeste el monte y la Reserva Forestal de Albinagoia, al sur el bosque de Mirugain y el embalse de Albina y al este el monte de Murugain. Aramaio es ideal para perderse por sus rincones y disfrutar de la naturaleza.

Parque de Urkiola

El entorno que conforma el Parque Natural de Urkiola constituye un área de gran valor natural y paisajístico que encierra importantes recursos culturales, históricos y arqueológicos; forjadores a lo largo del tiempo de un rico folclore basado en una extensa tradición oral, mitos, leyendas y cuentos.

El paisaje de Urkiola está cubierto de un extenso manto de vegetación, únicamente interrumpido por las escarpadas cumbres de roca caliza. La vegetación del Parque está formada de diversas comunidades vegetales, entre las que destacan por su importancia las masas boscosas. Más de la mitad de toda la masa forestal son bosques naturales de hayas, encinas, robles, abedules y marojos. El resto lo constituyen, principalmente, plantaciones de coníferas.

El topónimo "urkiola", nombre del parque, hace referencia a la existencia de abedules, urki(a) = "abedul", "ola" = "factoría" "ferrería". Se podría traducir como "ferrería del abedul".

Reserva forestal de Albinagoia

En esta Reserva Forestal se distinguen tres partes claramente diferenciadas.

Dos de ellas están formadas por colecciones de distintas especies de coníferas y frondosas; mientras que la tercera zona se caracteriza por la presencia de la masa más antigua de Pino insigne (Pinus radiata) del Territorio Histórico de Álava. Son pinos de espectacular porte. El pino insigne más alto alcanza los 44 metros.

En el arboreto de la Reserva hay especies exóticas de lugares tan diferentes como Estados Unidos, Canadá, China, Himalaya, Balcanes, Cáucaso, Japón, Centroeuropa, Corea, etc.

Aprovechando la visita a la Reserva Forestal se puede dar un paseo por el monte de Albinagoia, que da nombre a la reserva, donde se podrá transitar entre masas de frondosas autóctonas como robledales y hayedos de gran belleza y poder encontrarse con algún jabalí o corzo y admirar el vuelo del alimoche.

Bosque de Mirugain

En el bosque de Mirugain se puede disfrutar de la presencia de centenarias hayas trasmochas, fiel reflejo del uso de los mismos para la leña para el carboneo y las ferrerías. Ginetas, gaduñas, martas y visones europeos entre otros, moran en este bosque.


Embalse de Albina

Es el más pequeño de los embalses del sistema del Zadorra, el más desconocido, pero es el más bonito. Un pequeño mar entre extensos bosques. Robles, avellanos, hayas y espinos, entre otros, hacen del embalse de Albina, un lugar muy especial.


"Mirugain"


"Albina"


"Tellamendi Ipiztetik"


"Maskaiño baserria"


"Ipiztikoarriagako estela"


"Goikoerrotako karobia"

PATRIMONIO HISTÓRICO Y CULTURAL

Ferrería Aurtola

El señor de Aramaio, Juan Alonso Mujika, construye la ferrería Aurtola junto a Goikolea en el último tercio del siglo XIV. La antigua ferrería medieval debió sufrir frecuentes modificaciones con el paso del tiempo hasta llegar al edificio actual, que la sustituyó en el último tercio del siglo XVIII.

A pesar de las intervenciones que ha sufrido el edificio y de no disponer de ningún elemento de la maquinaria para trabajar el hierro, permanece prácticamente inalterado en su organización espacial y estructuras fundamentales, de tal manera que quedan totalmente reconocibles cada uno de los elementos integrantes de la ferrería.

Tumbas de Letazur

En la colina llamada Letazur, donde se ubica la ermita de San Pedro, existen en su entorno una serie de tumbas de diversos tamaños. Posiblemente perteneciesen a algún núcleo cercano de aquella época. Las tumbas las podemos ubicar entre el siglo IX y el XI.

Murugain

Murugain siempre ha cumplido una función estratégica, valiéndose para ello de su ubicación y relieve apto para la fortificación.

Su lado sur, está flanqueado por una muralla de la Edad del Hierro (I milenio a.C.). Esta muralla protegía un poblado, del cual se han localizado restos arqueológicos aislados: fragmentos cerámicos, molinos de mano, alisadores y percutores.

Zona de frente en la Guerra Civil, en el vaciado de las trincheras proporcionó abundante y variado material bélico y otros objetos metálicos como latas de comida, que ha permitido ahondar en la particular microhistoria que se vivió en las trincheras.

La estela de Ipiztikoarriaga.

Ubicada en este cruce de caminos de gran importancia en la antigüedad, tiene dibujada en su cara Sur una cruz. La leyenda que rodea a esta estela nos dice que aquí fue muerto un enviado del obispo de Calahorra que había acudido a informar de que los diezmos de alguna de las iglesias pertenecían al obispo; a la vuelta hacia La Rioja fue ajusticiado.

ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA

Aurtola burdinola

XVI. mendearen hirugarren herenean eraikitako burdinola da Aurtola, Goikolea burdinolarekin batera, Juan Alonso Mujika, Aramaioko jauntxoaren aginduz. Burdinola zaharra osatzen duen eraikuntzak hainbat moldaketa izan zituen, egun ezagutzen dugu eraikuntza izan artean, azken aldaketa hori XVIII. Mendeko azken herenean eman zen.

Aipatutako aldaketez gain, eta makineria desagertu den arren, hasierako espazio antolakuntza bera mantentzen du Aurtolak, burdinolaren prozesu eta elementuak argi eta garbi ikus litezkeelarik.

Letazurreko hilobiak

Letazur izeneko muinoan, San Pedro ermita eraiki zen, baina berau baino zaharragoak dira, IX eta XI mendeen bitartekoak, inguruan aurkitzen diren hilobiak. Garai haietan dagoeneko inguru honetan giza talde bat finkaturik egon baitzen.

Ipiztikoarriaga

Hego aurpegian gurutze bat duen harri hau, bidegurutze garrantzitsu batean kokatzen da. Kondairak dioenez, Errioxara bueltan zihoan Calahorrrako apezpikuaren laguntzailea bertan hil zuten hainbat elizen zergak biltzera joan ondoren.

Murugain

Mendi honen orografia berezia eta kokapen estrategikoa aprobetxatuz, bertan hainbat gotorleku egon izan dira. Hegoaldean, Burdin Aroko (K. A. I mendea) herrixka babesten zuen harresi bat dago. Arkeologoek hainbat tresna aurkitu dituzte bertan: zeramizkazko piezak, eskuzko errotarriak, leuntzaileak, kolpekariak…

Bestalde, Gerra Zibilean ere toki estrategikoa izan zen Murugain eta lubakiz josita dago. Aurkitutako gerra materialari esker gure historiaren berri izan dugu.

Arabako Pinus radiata altuenak Albinagoian daudela zenekien?

¿Sabías que los Pinus radiata más altos de Araba están en Albinagoia?



GANTZAGA
EGUZKIERRIPA
ETXAGUEN
OLETA
IBARRA
ARRAGA
ARRIOLA
BARAJUEN
SUNA (ZURINAO)
MURU
ERROTABARRI
ZALGO
AREXOLA
AZKOAGA
UNTZILLA
ZABOLA
URIBARRI
ZUBIETA
GUREIA
ALTZAGA

IBILBIDEAK

Ibilbideen informazio sakonagoa:

www.aramaio.eus

1. TELLERIXA BIDEA - 4,25 Km.

Ibarra - Arraga - Arrikogoiti - Arriola - Ibarra
Ibilbide honetan Ibarra Arriolarekin eta Arrikogoiti Arragarekin batzen dituzten aintzinako bideak erabiliko ditugu. Altuera hartzen dugunean Aramaioko paisaia ederrak eta inguruko mendiak ikusiko ditugu. Ibilbidea "La bañera" parkean hasten da (garai batean bainuetxea kokatuta zegoen tokian).

2. GOIKOERROTAKO BIDEA - 2,12 Km.

Bizente Goikoetxea plaza - Kurtzia - Goikoerrota - Andra Mª - Ibarra
Ibilbide oso erraza, familia osoarentzat egokia, non Arane izeneko aran txikia ezagutuko dugun, bere erreka, ermita eta karobiarekin. Andramariko ermita inguratzen duen parkea oso toki aproposa da geldiunea egiteko.

3. TELLAMENDIKO BIRA - 8,56 Km.

Bizente Goikoetxea plaza - Maskaiño - Ipiztekoarriaga - Tellamendi - Lurgorri - Ametzua-Ibarra
Ipiztekoarriagara joateko aspaldi erabiltzen zen bidea hartuko dugu. Ipiztikoarriagan, bidegurutze esanguratsua nabarmentzen duen estela aurkituko dugu(bertan erahil zuten Calahorrako gotzainaren mezulari bat) eta hortik Tellamendira igoko gara. Bertatik Aramaio eta inguruko mendi eta herriak begiztatuko ditugu. Eta Ibarrara itzultzeko, Besaideko bide zaharra erabiliko dugu.

4. ORIXOLEKO BIRA - 10,66 Km.

San Kristobal - Arangio - Orixol-Lezeaga (Lezia) - Etxaguen-Ipurtotz - Larrazabal - San Kristobal
Ibilbide hau hasteko bi aukera dugu: San Kristobaleko ermitatik (Kurtzetagaina) edo Etxaguen auzotik. Kasu bietan Orixoleko puntara igoko gara (1128 m.), Santikurtz ermita bisitatuko dugu eta kareharri artean hasten den pagadi bitxia zeharkatuko dugu. Bista ederrak: Gorbeia, Anboto, Udalatx, Aizkorri, Kurtzebarri…

5. SAN ADRIANGO BIRA - 8,72 Km.

Ibarra - Zalgo - Gureia - Kurtzeta - San Adrian - Azkoaga-Ibarra
Kurtzeta gainera igoko dugu, Gasteizko galtzada zaharra erabilita, eta Zalgo eta Gureiatik igaro ondoren. Kurtzeta gainean pista zabal bat hartuko dugu San Adrian ermitara iristeko (iturria). Ibarrara bueltatzeko Azkoaga auzora jaitsiko gara eta bide zaharra hartuta, Santa Agedatxo ermitatik behera egingo dugu, Ibarraraino.

6. OLETA-OTXANDIO-OLETA - 5,40 Km.

Ibilbide laua eta erraza da, Oletako auzoa eta bizkaitar Otxandio herria lotzen duena. Bide lasaietatik ibiliko gara, pago motz, harizti eta belardi artean.

7. JARINDOKO BIRA - 9,87 Km.

Mariaka (Marixeka) - Jarindo - Albina - Mariaka (Marixeka)
Mendi ibilaldia da. Ez dugu inolako auzo ez baserri pasatuko Jarindoko bidean. Jarindo, Albertia eta Marotoko zonaldean, bataila garrantzitsuak izan ziren gerra zibilean.Bueltatzeko Albinako urtegia inguratuko dugu. Oso egokia da udazkenean zeharkatzeko, eskaintzen duen kontraste kromatikoaz gozatzeko.

8. BARAJUENGO BIRA - 5,40 Km.

Ibarra - Marka - Barajuen - Azkoaga - Ibarra
Ibilbide honek Ibarrako erdigunea eta Barajuen eta Azkoaga auzoak lotzen ditu. Bidearen hasiera baso berrietatik egingo dugu, baina laster belardi eta Barajuengo bista ikusgarriez disfrutatuko dugu. Ibarrara haritzondo artean jaitsiko gara, Azkoaga eta Ibarra lotzen duen bide zaharretik.

9. MURUGAINEKO BIRA - 5,53 Km.

Untzilla - Murugain - Muru - Untzilla
Ibilbide hau hasteko Untzila auzoraino joan beharko gara eta Muruko bidea jarraituko dugu, guruztokiraino. Hemendik Murugainera igoko gara (gerra zibileko lurbakiak bertan kokatzen ziren eta gaur egun indusketak egiten ari dira). Murugainetik Leintzeko bailararen ikuspegi zabala izango dugu. Eta ekialdetik jaitsiko gara, pista zabal batetik Muruko bide zaharra hartu arte.

10. ALBINAGOIAKO BIRA - 13,33 Km.

Oletako guardetxea - Urkiolako Santutegia - Atxin - Oletako guardetxea
Ibilbide honek Albinagoiako pago eta haritz baso mardulak igarotzen ditu eta Urkiolako santutegiraino eramango gaitu. Albinagoiako pagadia, Arabako Diputaziоaren jabetzakoa, zonaldeko zabalenetarikoa da. Oso ikusgarria, batik bat udazkenean eta uda partean.

11. MIRUGAINEKO BIRA - 9,44 Km.

Mariaka (Marixeka) - Albina - Mirugain - Behialde - Mariaka (Marixeka)
Mariaka (Marixeka)tik irtenda, eta Albinako urtegia poliki poliki zeharkatu ondoren, Mirugainera igoko gara hegoaldetik. Otxandioruntz jaitsiko gara pago motz artean eta "Gorrien bide"ra iritsiko gara. Eskuinera hartuta, Behialdeko abeletxe ondotik pasatuko gara eta berriro ere Mariakara iritsiko gara.


"Anboto"

MITOLOGÍA

En este abrupto valle, como en muchos otros lugares del País Vasco, se han ido transmitiendo de generación en generación, las historias que alguna vez alguien pudo haber visto u oído. San cientos los pasajes mitológicos o las leyendas que se cobijan en los corazones de los bosques, las cuevas de las montañas o los lugares más ocultos del pueblo.

Así nos llegan los relatos de Mari, la dama de Anboto. Se dice que la diosa principal de la mitología vasca y de la madre naturaleza, y protagonista en cientos de leyendas, vive en una cueva situada al noreste de Anboto. Al parecer, se mueve de un lado a otro cogiendo impulso en los picos de alrededor, y hay quien dice que la ha visto alguna vez, volando en forma de luz o bola de fuego. Pero no es Mari el único ser misterioso de estos lugares; si bien Mari es quien nos cuida y vigila desde las cumbres, en la tierra, en las orillas de los ríos más transparentes del valle, son las lamias las guardianas de la naturaleza. Son numerosas las historias que se cuentan sobre estos misteriosos seres con pies de oca: historias de amores imposibles, trabajos de edificación o arado que solían hacer a cambio de regalos…

Pero más allá de las historias mitológicas, en Aramaio encontramos muchas otras leyendas e historias, como la que cuentan sobre una joven de Arexola llamada Paula. Se dice, que bajo las peñas de Arangio, en un caserío del barrio de Arexola, vivía una hermosa mujer llamada Paula, que se enamoró de un joven de Gantzaga. Propiedades y riquezas de por medio, el padre de Paula, incapaz de aceptar el romance entre los dos jóvenes, y al ver que no había manera de limitar el deseo de su hija, la encerró en una oscura habitación del caserío en el que vivían. Pasaron los años y la gente del valle día a Paula por desaparecida, hasta que unos años más tarde un forastero que pasaba por allí, siguiendo sus gritos de socorro, la encontró en una oscura habitación, desnuda, enloquecida. Hay quien dice, que en las apacibles noches de verano, cuando el pueblo duerme, aún se oyen los gritos de Paula, pidiendo auxilio.

Estas historias y muchas más os aguardan en Aramaio. Conócelas.

MITOLOGIA

Anbotoko Mariren begiradapean dagoen ingurune malkartsu honetan ere, Euskal Herriko beste zenbait txokotan bezala, belaunaldiz belaunaldi ekarri dizkigute gaur egunera inoz bait norbaitek ikusi edo entzundako istorioak. Ehundaka dira basoaren bihotzean, mendietako haitzuloetan edo herriko txokorik ezkutuenetan gordetzen diren pasarte mitologiko eta kondairak.

Halaxe datozkigu Anbotoko señorie edo Mariren gaineko kontuak ere. Euskal mitologiaren eta ama lurraren jainkosa nagusia eta ehundaka kondairaren protagonista, Anboto mendiaren ipar-ekialdean dagoen koba batean bizi omen da. Inguruko tontorretan indarra hartuz mugitu ei da batetik bestera, eta badago esaten duenik noizbait ikusi duela, argi distiratsu edo su bola baten forman, zeruan hegaz. Baina ez da Mari inguruetako izaki misteriotsu bakarra; izan ere, Marik Anbotoren magaletik zaintzen gaituen bezala, lurrean, ur gardena garraiatzen duten erreken bazterretan, lamiak dira naturaren gotorleku. Ahate hankadun izaki misteriotsu hauen gainean ere, istorio ugari kontatzen dira; ezinezko maitasun istorioak, oparien truke egiten zituzten golda edo eraikuntza lanak…

Baina mitologiaz gaindi, bada Aramaion beste mota bateko istoriorik ere; Arexola auzoko Paularen gainekoa, esaterako. Diotenez, Arangio mendizerraren magalean, Arexola auzoko baserri batean, ba omen zegoen Paula izeneko neska gazte bat, Gantzaga auzoko baserritar batez maitemindu zena. Jabegoak eta aberastasunak tarteko, Paularen aitak ez zuen bien arteko maitasuna begi onez ikusten, eta Paularen nahiari mugarik jartzerik ez zuela ikusirik, gela ilun batean giltzaperatu zuen. Urteek aurrera egin zuten, eta herritarrek desagertutzat eman zuten neska gaztea. Urteak eta urteak pasa ziren, haren oihuei segika, atzerritar batek aurkitu zuen arte, gela ilunean, erdi biluzik, erotuta. Esaten dute, oraindik orain, udarako gau baketsuetan, herria lotara joatean, Paularen oihuak entzuten direla, laguntza eske.

Istorio hauek eta beste asko, zain dituzue Aramaion. Ezagutu itzazu!


"Arexola auzoa"

RUTAS

Más información sobre recorridos:

www.aramaio.eus

1. CAMINO DE LA TEJERÍA - 4,25 Km.

Ibarra-Arraga-Arrikogoiti-Arriola-Ibarra
Esta ruta utiliza los caminos viejos que unen Ibarra con Arriola y Arrikogoiti con Arraga. Una vez ganamos altura disfrutaremos de hermosas vistas del valle de Aramaio y los montes circundantes. El inicio del recorrido se sitúa en el parque "La bañera" (donde estaba ubicada la antigua casa de baños).

2. CAMINO DE GOIKOERROTA - 2,12 Km.

Plaza Bizente Goikoetxea- Kurtzia-Goikoerrota-Andra Mª-Ibarra
Recorrido muy fácil, apto para toda la familia, que nos descubre el pequeño valle de Arane, con su río, ermita y caserío. Además, el parque situado alrededor de la ermita de Andramari nos ofrece un sitio muy agradable donde descansar.

3. VUELTA DE TELLAMENDI - 8,56 Km.

Plaza Bizente Goikoetxea - Maskaiño - Ipiztekoarriaga - Tellamendi - Lurgorri - Ametzua - Ibarra
Utilizaremos el viejo camino de acceso a Ipiztekoarriaga, donde una estela marca este significativo cruce de caminos (lugar donde fue asesinado un mensajero del obispo de Calahorra). Tras ascender a Tellamendi contemplaremos Aramaio y los montes y localidades cercanas. Y para volver a Ibarra usaremos el viejo camino de Besaide.

4. VUELTA DE ORIXOL - 10,66 Km.

San Cristóbal - Arangio - Orixol-Lezeaga (Lezia) - Etxaguen - Ipurtotz - Larrazabal - San Cristóbal
Este recorrido podemos comenzarlo desde la ermita de San Cristóbal (alto de Kurtzeta) o desde el barrio de Etxaguen. En ambos casos subiremos hasta la cumbre de Orixol (1128 m.), visitaremos la ermita de Santikurtz y atravesaremos un curioso hayedo que crece entre rocas calizas. Vistas espectaculares: Gorbeia, Anboto, Udalatx, Aizkorri, Kurtzebarri,…

5. VUELTA DE SAN ADRIAN - 8,72 Km.

Ibarra - Zalgo - Gureia - Kurtzeta - San Adrian - Azkoaga - Ibarra
Subiremos al alto de Kurtzeta utilizando la vieja calzada a Vitoria, pasando por Zalgo y Gureia. En el alto de Kurtzeta cogeremos una amplia pista que nos llevará hasta la ermita de San Adrian (fuente). Para volver a Ibarra bajaremos a Azkoaga y seguiremos por el camino viejo que desciende a Ibarra por la ermita de Santa Agedatxo.

6. OLETA-OTXANDIO-OLETA - 5,40 Km.

Recorrido llano y fácil que une el barrio Oleta con la población bizkaina de Otxandio por tranquilos caminos entre hayas trasmochas, robledales y prados.

7. VUELTA DE JARINDO - 9,87 Km.

Mariaka (Marixeka) - Jarindo - Albina - Mariaka (Marixeka)
Es una ruta montañera. No pasamos por ningún barrio ni caserío hasta la cumbre de Jarindo. En la zona de Jarindo, Albertia, Marato, se libraron importantes batallas en la guerra civil. Para la vuelta bordearemos el pantano de Albina. Es ideal recorrerla en otoño para disfrutar de su contraste cromático.

8. VUELTA DE BARAJUEN - 5,40 Km.

Ibarra - Marka - Barajuen - Azkoaga - Ibarra
Este recorrido conecta el núcleo de Ibarra con los barrios de Barajuen y Azkoaga. El camino comienza entre repoblaciones de pinos, pero pronto disfrutaremos de los prados y vistas de Barajuen. Descendemos a Ibarra por un bosque de robles del camino antiguo de Azkoaga a Ibarra.

9. VUELTA DE MURUGAIN - 5,53 Km.

Untzilla - Murugain - Muru - Untzilla
Para realizar este recorrido debemos partir del barrio de Untzilla y seguir el camino de Muru hasta el humilladero. Desde aquí ascendemos hasta Murugain (antiguo castro y ubicación de trincheras en la guerra civil y que actualmente se está excavando). Murugain nos ofrece una amplia perspectiva del valle de Leintz. Descendemos hacia el este por una amplia pista hasta coger el viejo camino de Muru.

10. VUELTA A ALBINAGOIA - 13,33 Km.

Oleta (Casa forestal) - Santuario de Urkiola - Atxin - Oleta
Este recorrido atraviesa el frondoso bosque de hayas y robles de Albinagoia y nos lleva además hasta el santuario de Urkiola. El hayedo de Albinagoia, propiedad de la Diputación de Alava, es uno de los más extensos de la zona. Especialmente interesante en otoño y verano.

11. VUELTA DE MIRUGAIN - 9,44 Km.

Mariaka (Marixeka) - Albina - Mirugain - Behialde - Mariaka (Marixeka)
Partiendo de Mariaka (Marixeka) y tras bordear pausadamente el pantano de Albina, subimos tranquilamente el monte Mirugain por el sur. Descendemos entre hayas trasmochas hacia Otxandio y llegamos al "camino de los rojos". Cogiendo hacia la derecha, pasaremos junto a la granja de Behialde y llegaremos otra vez a Mariaka.


"Oleta"


"Monteron etxea-Argierrota"


"Mariarka"